



Universidad  
del País Vasco

Euskal Herriko  
Unibertsitatea

HEZKUNTZA  
ETA KIROL  
FAKULTATEA  
FACULTAD  
DE EDUCACIÓN  
Y DEPORTE

# **AUTOKONTZEPTUA ETA KOMUNIKAZIOA**

## **LEHEN HEZKUNTZAKO AZKEN ZIKLOAN**

### **GRADU AMAIERAKO LANA**

EGILEA: Camón del Pozo, Irati

ZUZENDARIA: Ramos Diaz, Estibaliz

**2020**

## LABURPENA

---

Ongizate psikologikoak norbanakoen bizi kalitatea baldintzatu dezakeen heinean, ezinbesteko suertatzen da haurrek autokontzeptu egoki bat garatu dezatela bermatzea. Hortaz, autoirudia inguruarekiko harreman eta esperientzien bidez garatzen dela jakinik eta, gizaki sozial garen heinean, gure harremanak komunikazioan oinarritzen ditugula aintzat hartuz, lan honek autokontzeptuaren eta komunikazioaren inguruko kontzeptualizazioaren berrikuspen teorikoa egitea eta Lehen Hezkuntzako lagin batean bi aldagai psikosozial hauek neurtu eta analizatzea du helburu. Hala, lortutako informazioarekin, hezkuntzatik ikasleen ongizate psikosozialaren alde lan egiteko ildo berriak zabaltzea espero da.

Hitz gakoak: *autokontzeptu, komunikazio, ikerketa, Lehen Hezkuntza.*

## RESUMEN

---

En la medida en que el bienestar psicológico puede condicionar la calidad de vida de los individuos, resulta imprescindible garantizar que los niños desarrollen un autoconcepto adecuado. Por tanto, conscientes de que la autoimagen se desarrolla a través de relaciones y experiencias con el entorno y de que, como personas sociales, nuestras relaciones se basan en la comunicación, este trabajo pretende realizar una revisión teórica de la conceptualización del autoconcepto y la comunicación y medir y analizar estas dos variables psicosociales en una muestra de Educación Primaria. Así, con la información obtenida se espera que desde la educación se abran nuevas líneas de trabajo para trabajar por el bienestar psicosocial del alumnado.

Palabras clave: *autoconcepto, comunicación, investigación, Educación Primaria.*

## ABSTRACT

---

To the extent that psychological well-being can condition the quality of life of individuals, it is essential to ensure that children develop an adequate self-concept. Therefore, aware that self-image develops through relationships and experiences with the environment and that, as social people, our relationships are based on communication, this work aims to perform a theoretical review of the conceptualization of self-concept and communication and measure and analyze these two psychosocial variables in a sample of Primary Education. Thus, with the information obtained it is expected that from education new lines of work will be opened to work for the psychosocial well-being of students.

*Keywords: self-concept, communication, research, Primary Education.*

## AURKIBIDEA

---

1. SARRERA.....	3
2. JUSTIFIKAZIOA.....	4
3. MARKO TEORIKOA.....	5
3.1. Autokontzeptua.....	5
3.1.1. Definizioa.....	5
3.1.2. Bilakaera historikoa.....	6
3.1.3. Autokontzeptuaren garapena Lehen Hezkuntzako azken zikloan.....	9
3.1.4. Autokontzeptua neurtzeko tresnak.....	10
3.2. Komunikazioa.....	12
3.2.1. Definizioa eta sailkapena.....	12
3.2.2. Gaitasun sozialen garapena Lehen Hezkuntzako azken zikloan.....	15
3.2.3. Komunikazioa neurtzeko tresnak.....	16
3.3. Autokontzeptua eta komunikazioaren arteko harremana.....	17
3.4. Irakaslearen egitekoa.....	18
4. HELBURUAK.....	20
5. METODOA.....	20
5.1. Lagina.....	20
5.2. Aldagaiak eta hauen neurketarako erabilitako tresnak.....	21
5.3. Prozedura.....	22
5.4. Eraitzen azterketa eta informazioaren trataera.....	22
6. EMAITZAK.....	24
6.1. Batz bestekoak eta aldagai sozio-demografikoen arabera emaitzak.....	24
6.2. Bi galdetegiaren emaitzen arteko alderaketa.....	27
6.3. Eraitzen ondorioak.....	31
7. EZTABAIDA.....	32
8. HOBETUNTZA PROPOSAMENAK ETA ETORKIZUNEN IKERKETA LERROAK GARATZEKO ILDOAK.....	35
9. ERREFERENTZIAK.....	36
10. ERANSKINAK.....	

## 1. SARRERA

---

Gizaki sozialak garen heinean komunikazioa ezinbesteko elementu dugu gure artean harremanak sortu eta mantentzeko, eta, era berean, harremanotan ditugun interakzio zein feedbackek esangura handia dute gure autokontzeptuaren sorrera eta garapenean. Hau da, kalitatezko bizitza baterako beharrezko dugu autokontzeptu egoki bat garatzea ahalbidetuko digun komunikazioa izatea. Anthony Robbinsek dioen bezala: *“La forma en que nos comunicamos con otros y con nosotros mismos, determina la calidad de nuestras vidas”*.

Hala ere, azken urteotan gizarte kapitalistak indibiduoaren ongizatea zaintza kolektibotik aldendu eta kontsumo indibidual bezala saltzeko hartu duen joeraren ondorioz, gure arteko harremanak geroz eta deshumanizatuagorik daude; enpatiatik eta zaintzatik urrun. Hori dela eta, autokontzeptuan interakzio deshumanizatuok izan dezaketen eragina ulertuta, pertsonen ongizate psikosozialaren izenean, harreman hauetako interakzioak balore humanoagoetara hurbiltzeko beharra dago.

Hala, eskola urte askotan zehar harremanetarako gune esanguratsua dela jakinik, lan honetan ikasleek irakasleak gelan darabilen komunikazioarekiko duten sentrazioak euren autokontzeptuan eragina duen aztertzea du helburu; hala izatekotan eskola enpatiaz hezkuntza berhumanizatzeko lanei ekiteko. Horretarako, hurrengo orrialdeetan kezka honen inguruko ikerketa bat plazaratzen da, zehazki Gasteizeko hiru zentrotako Lehen Hezkuntzako hirugarren zikloko 6. mailetan, haurtzaro eta nerabezeroaren muga sotilean, burututako azterlan bat.

Ulergarritasuna bermatze aldera, lan hau hainbat ataletan sailkatu eta antolaturik ageri da. Hala, lan honen hasieran, hautaketaren justifikazioaren ostean, autokontzeptuaren eta komunikazioaren azalpen teorikoak eta hauen arteko harremana zein helduen zeregina biltzen dituen marko teorikoaren berrikuspina ageri da. Ondoren, ikerketaren helburuak, metodoa eta emaitzak plazaratzen dira, baita emaitza hauetan oinarritutako ondorioak eta hauen inguruko eztabaida ere. Azkenik, ikerketa honen hobekuntza proposamenak aurkezten dira, etorkizuneko ikerketa lerroak garatzeko ildoetarako gonbidapenarekin batera.

## 2. JUSTIFIKAZIOA

---

Euskal Herriko Unibertsitatean burututako Lehen Hezkuntza graduaren azken une hauetan, Gradu Amaierako Lanari hitza emateko garaia heldu da; graduako azken lanari bide ematekoa. Ateak zabaltzen hasteko, ordea, gai hau hautatzeko zergati pertsonal zein profesionalen berri eman nahiko nuke lehenik, nire motibazioak biluzteko.

Arlo pertsonalari dagokionez, nahiz eta hainbat izan gai hau hautatzeko arrazoiak, esanguratsuenak Haur Hezkuntzako Gradu Amaierako Lanarekin izaniko esperientzia eta bizitzako puntu honetara heldu bitartean eginiko ikastaroek sorturiko jakin-mina izan dira. Lehenengo gradua burutu nuenetik, gisa honetako lan bat psikologia departamentuko edota komunikazio arloko gairen baten inguruan egin nahi izan dut, baina, orduko lanaren gaia, zoritxarrez, ezin izan nuen hautatu; akats informatiko batek galarazi zidan. Hortaz, Lehen Hezkuntzako gradu honek aspalditik interesatzen zaizkidan bi departamentuotako gaietarako ateak birzabaldtu dizkit; nire aspaldiko interesak asetzeko aukera eman dit. Honi, duela lau urte burutu nuen Komunikazio Ez Bortitzaren inguruko ikastaroak nigan izan duen eragina batu behar zaio, pertsona eta etorkizuneko irakasle gisa gauza asko planteatzera, kezka eta hausnarketa ugartara, eraman bainau. Hala, formakuntzak ere ate berriak zabaldtu dizkit; begirada desberdinak lantzeko gogoak eman dizkit.

Hala, kezka pertsonalok zuzenean eragin dute funtzio sozial eta sozializatzaileraren duen nire ni profesionalaren; izan nahi dudana irakaslearen sorreran, arlo profesionalaren, eragiten dute ezinbestean. Izan ere, egun naizen pertsona hobetzeko saiakeretan, hein handi batean, umeei eskaini nahi didan irakaslea hobetzeko nahia ere badago. Urteen joanean haurrak erabateko esponjak direla egiaztatzeko aukera izan dut, eta eduki zein prozedurazkoetan baldin badira, are gehiago dira jarrerari dagokionean; berezko imitatzailerak dira. Hori dela eta, egiten dugun orok eurengan pisu edo marka nabaria utzi dezakeela pentsatzen dutenetarikoak naiz; euren oinarriak, beste batzuen artean, gure eremuan daudela uste dutenetarikoak.

Arrazoi guztion ondorioz, nire kezka pertsonal zein profesionalak asebate bitartean hezkuntza komunitateari ekarpena egin nahi dion lana duzu(e) esku artean; irakasleak hurrekiko duen tratua, eta, ezinbestean, darabilen komunikazioak, haurren nortasunaren garapenean eta autokontzeptuan eragina duenaren ustea ikerketa bidez frogatu nahi duen lana. Hain garrantzitsua ote da irakasle gisa dugun hitz egiteko eta tratatzeko modua haurren izaeraren sorrerarako? Ikus dezagun.

### 3. MARKO TEORIKOA

---

#### 3.1. Autokontzeptua

Hamaika izan dira alor desberdinetatik autokontzeptua ikertzeari esker konstruktio honen inguruko ezagutza aberastu duten autoreak, baina psikologiaren alorrean, bereziki, interes handia sortu izan du diziplina zientifiko bilakatu zenetik gaur egunera arte. Hori dela eta, ugariak izan dira termino honi erreferentzia egiteko erabilitako hitzak: *self*, autodefinizio, autoirudi, autopertzepzio, autonortasun, norbera, norberaren irudi, norberaren nozio, norberaren kontzientzia, norberaren pertzepzio, norberaren irudikapen, niaren kontzeptu, izaera... (Fernández eta Sarasa, 2016) (Rodríguez, 2008 in Cazalla eta Molero, 2013: 12).

##### 3.1.1. Definizioa

Etimologia oratuz, "auto" aurrizki grekoaz eta latinetik eratorritako "conceptum" hitzaz egiten dugu topo. Lehenengoak "norbere kabuz" edo "norberarekiko" esan nahi duen bitartean, bigarrenak "sortu", "heldu" edota "atzeman" hitzei egiten die erreferentzia. Hortaz, kontzeptuak etimologikoki norbera atzemateko prozesuari egiten dio aipamen; pertsona bakoitzak bere buruaz duen ideia adierazten duen ikuspegi kognitibo edo pertzepziozkoa dela adierazten du (Fernández eta Sarasa, 2016).

Etimologiak ematen digun azalpenaren oinarria babestuz, Hamercheck (1978), Markus, Smith eta Moreland (1985) zein Harter (1990) autoreak topa ditzakegu, lehenengo biek autokontzeptua norbanakoari abileziaz eta gaitasunez jardutea ahalbidetzen dion estruktura kognitibo gisa, sistemaren osagai kognitibo gisa, definitzen duten bitartean, Harterrek norbanakoak bere buruaren inguruan dituen pertzepzio bezala deskribatzen baitu (Apodaca eta Véliz, 2012; Vargas, 2017).

González eta Touronek (1992), era berean, autokontzeptua formazio kognoszitiboa dela babesten dute, eta konstruktio hau garen, izan nahi dugun eta gainerakoei adierazten diegun irudietan oinarriturik sortzen dela diote (González eta Goñi, 2005). Hori gutxi balitz, norbanakoak bere buruaren inguruan dituen pertzepzioei erreferentzia egiten diela eta garapen ebolutiboan zehar aktiboki sortzen dela gaineratzen dute (Fernández eta Goñi, 2008).

Hala ere, autoreok ez dira definizioaren barnean pertzepzio hitza aipatzen duten bakarrak. Burnsek dimentsio kognitibo, afektibo eta jarrerazkoan norberak bere buruaren inguruan dituen pertzepzio eta balorazio gisa definitzen du (Apodaca eta Véliz, 2012), eta L'Ecuyerrek norberaren autopertzepzio, irudi eta errepresentazio bezala.

Azken honek, gainera, maila txikiago edo handiago batean autokontzeptua partzialki kontzientea dela dio, norbanakoak bere baitako parte bezala ulertzen dituen ezaugarri, irudi, sentimendu eta gaitasun propioak ingurukoekin eta ingurunearekin harremanetan daudelako (Apodaca eta Véliz, 2012; Vargas, 2017). Hala, Piersek (1984) deskribatzen duen autokontzeptuaren egonkortasun partzialaren aurka (Puigcerver, 2004) eta Purkey (1970) zein Rogersek (1975) proposatzen duten sistema konplexu eta dinamikoaren alde egiten du (Vargas, 2017).

Arlo honetan zenbait autoreren arteko bat etortzea existitzen dela esan liteke, hainbat baitira -Shavelson, Hubner eta Stanton, 1976; Hurlock, 1978; L'Ecuyer, 1985; González eta Núñez, 1990; Ballester, March eta Orte, 2006- autokontzeptua inguruarekiko harreman eta esperientzien bidez eraikitzen dela diotenak (Apodaca eta Véliz, 2012; Cazalla eta Morelo, 2013; Vargas, 2017).

Ikus daitekeen bezala autokontzeptuaren deskribapenak historikoki zalaparta ugari suposatu ditu, eta horrek egun definizio abaniko zabala egotea dakar (Gálvez, 2016). Hori dela eta, bakarra hautatu behar izatekotan, Shavelson, Hubner eta Stantonen definizioa oratu beharko litzateke, onartuena eta zabalduena izateaz gain, argitalpen gehienek aipatzen dutena baita (Fernández eta Sarasa, 2016):

“Pertsona jakin batek bere buruaz duen pertzepzioa, inguruarekiko esperientzia eta harremanetan oinarrituta osatzen dena, eta non inguru-faktore indargarriek zein haren bizitzako beste pertsona esanguratsuek zeregin garrantzitsua duten” (Shavelson, Hubner eta Stanton, 1976 in Fernández eta Sarasa, 2016: 56).

### **3.1.2. Bilakaera historikoa**

Dena den, definiziotik haratago, azken urteotako aspektu gatazkatsu eta polemikoena autokontzeptuaren estruktura ulertzeko moduaren ondoriozkoak izan da. Izan ere, denbora luzez dimentsio bakarreko konstrukto global gisa kontsideratzen XX. mendeko hirurogeigarren hamarkadan dimentsio anitzeko kontzepzio hierarkikoa kontsideratzen pasa zen.

Orokorrean, dimentsio bakarreko lehenengo planteamendu historiko hauen jarraitzaile ziren autoreek, hala nola Coopersmith (1967) eta Marx eta Wynnek (1978), norberak bere buruaren inguruan dituen pertzepzioak orokortasun global eta ikusezin bat sortzen dutela babesten zuten. Dimentsio anitzeko planteamendua babesten zutenek, ordea, autokontzeptu orokorra norbanakoak dituen pertzepzio partzialen baturaz sortuko litzatekeela defendatzen zuten (García eta Musitu, 1999).

Laurogeigarren hamarkadan buruturiko ikerketek autokontzeptuaren teorizazio, neurri eta ikerkuntzan aurrerapauso garrantzitsua suposatu dute (Esnaola, Goñi eta Madariaga, 2008), eta horiei esker autokontzeptuaren baitan eremu espezifikoa daudela erakusten duten ebidentzia enpirikoak aurkeztu dira (Wylie, 1979; Harter, 1983; Marsh eta Shavelson, 1985 in Fernández eta Sarasa, 2016: 55).


Ebidentzia hauen ondorioz, ugariak eta anitzak izan dira dimentsio anitzeko ereduak deskribatu eta proposatu dituzten autoreak (Harter, 1982; Pallas, Entwisle, Alexander eta Weinstein, 1990; Musitu, García eta Gutiérrez, 1991), baina eredu aipagarriena azken hogeita hamar urteotan ikerketa askoren bidez aztertua eta autore ugariengatik (Soares eta Soares, 1979; Harter, 1982; Marsh, Barnes, Cairns eta Tidman, 1984; Boersma eta Chapman, 1985; Byrne eta Shavelson, 1986; Marsh, 1987; Zorich eta Reynolds, 1988; Marsh, 1990; Martorell, Bernandez, Flores, Conesa eta Silva, 1990; Marsh, Craven eta Debus, 1991; Martorell, 1992; Marsh eta Hattie, 1996; Marsh eta Craven, 2006; zein Moritz, Read, Clark, Callahan eta Albaugh, 2009) babes enpiriko gehien jaso izan duen Shavelson, Hubner eta Stantonen (1976) dimentsio anitzeko eredu hierarkikoa da (García eta Musitu, 1999; González eta Goñi, 2005; Esnaola, Goñi eta Rodríguez, 2011; Apodaca eta Véliz, 2012; Gálvez, 2016).

Autoreok sorturiko eta Gonzalez eta Touronek (1992), Elexpuru, Garma, Marroquín eta Villak (1992) zein Núñez eta González-Piendak (1994) hedaturiko eredu honek, autokontzeptu orokorra, estruktura hierarkiko bati jarraiki, dimentsio zehatzago eta espezifikagoez osaturik dagoela dio (Ikus 1. Irudia). Hala, autokontzeptu akademiko eta ez akademiko bereizten ditu, era berean dominio hauek beste zenbait dimentsiotan banatuz (Vargas, 2017).



## 1. Irudia

Shavelson, Hubner eta Stantonen (1976) dimentsio anitzeko eredua.



(Morente-Oria, 2015 in Gálvez, 2016)

Autokontzeptu akademikoak errendimendua eskatzen duten egoeretan ikasleek duten ezagutza eta autopertzepzioei erreferentzia egiten dio; hau da, ikastun gisa ikasleek euren buruaz duten pertzepzioari (Miras, 2004 in Fernández eta Sarasa, 2016: 59). Honen barnean, nahiz eta autokontzeptu orokorrarekin korrelazionaturiko bi autokontzeptu - hitzezkoa eta matematikakoa- daudela egiaztatu den (Marsh eta Shavelson, 1985 in Fernández eta Sarasa, 2016: 60), Shavelson eta besteen ereduari jarraiki, ingelesa, historia, matematika eta gizarte zientzien ikasgaiak bereizten dira.

Dominio ez akademikoak, bestalde, dimentsio soziala, pertsonala edo emozionala eta fisiko barne hartzen ditu. Dimentsio soziala pertsonak harreman sozialekiko duen pertzepzioari dagokio eta lotura positiboa du egokitzapen psikosozial egokiarekin zein errendimendu akademiko onarekin eta negatiboa lankideen arteko gatazka, gaitzespen edota liskarrekin (Murray, Griffin, Rose eta Bellavia, 2003 in Gálvez, 2016: 19). Dimentsio emozionalak, bestalde, norbanakoak bere aldaratez duen pertzepzioari eta egoera jakin batzuetan honen arabera emandako erantzunei egiten dio erreferentzia. Azkenik, dimentsio fisiko subjektu bakoitzak bere itxura fisikoaz eta egoera fisikoaz duen pertzepzioari dagokio, eta lotura positiboa du osasuna eta ongizatea balioestearekin zein autokontrolarekin eta negatiboa eskola-desoreka zein antsietatearekin (García, Herrero eta Musitu, 1995 in Gálvez, 2016: 20).

Era berean, eredu honek, aurretik definituriko autokontzeptu ez akademikoaren barneko dimentsio hauek hainbat dimentsio zehatzagoetan bereizten ditu. Hala, nahiz eta egun dimentsio fisikoa banatzeko proposamenik onartuena lau dimentsiotakoa - trebetasun fisikoa, sasoi fisikoa, erakargarritasuna eta indarra- izan (Fox eta Corbin, 1989; Goñi, Ruiz de Azúa eta Rodríguez, 2006 in Fernández eta Sarasa, 2016: 61), ereduak trebetasun fisikoan eta itxura fisikoan soilik banatzen ditu. Soziala, ordea, berdinaren dimentsioan eta beste pertsona esanguratsuetan bereizten du, dimentsio pertsonalaren barnean egoera emozional zehatzak soilik kokatuz. Dena dela, azken bi dimentsiook ere sailkapen proposamen desberdinak jaso izan dituzte.

### **3.1.3. Autokontzeptuaren garapena Lehen Hezkuntzako azken zikloan**

Autokontzeptua, ezbairik gabe, bestelako garapen sozial edo fisikoekin batera (Pichardo eta Amescua, 2001 in Fernández eta Goñi, 2008: 3), norbanakoaren bizitza osoan zehar, etapa konkretu bakoitzeko arrasto, sentimendu eta arrazonamendu desberdinekin, gradualki garatzen den kontzeptua da (Puigcerver, 2004). Gurneyk (1988) zein Haussler eta Milicicek (1994) hiru garapen etapa aldarrikatzen dituzte: norbanako primitiboaren etapa, kanpo norbanakoaren etapa eta barne norbanakoaren etapa (Cazalla eta Molero, 2013).

Lehenengo etapan, barne garapen mentalaren hautematea emateari esker, gutxika, haurra bere buruarengan pentsatzen hasten da; betiere autokontzeptua globalki zein kanpo ezaugarri aldakor eta dependienteen arabera deskribatuz. Etapa existentzial honetan, gertuko helduek helarazitako informazioari esker, haurrak euren gorputzaren kontzientzia hartu eta honen irudia sortzen du (Fernández eta Goñi, 2008).

Denborak aurrera egin ahala, bigarren etapan, hizkuntzaren eta jolas sinbolikoaren garapenari zein garapen kognitiboa kategoria gehiagotan oinarritzeari esker, haurra gainontzekoetatik bereizten eta autokontzeptua izaera psikologiko eta sozialaren arabera deskribatzen hasten da. Honetan eragin nabarmena du eskola instituzioak suposatzen duen testuinguru sozialak, autokontzeptua garatzean eragiten duten faktoreak -lorpen eta porroten kontzientzia, pertsona desberdinekiko interakzioen areagotzea...- biderkatu egiten baititu. Hala, aldaketa garrantzitsua ematen da subjektuaren autodeskribapenetan, nortasunaren bereizgarriak aipatzen hasteaz gain onarpen sozialak bere balioen eskalan garrantzia esanguratsua hartzen baitu (Fernández eta Goñi, 2008; Cazalla eta Morelo, 2013).

Dena den, autokontzeptuaren garapenak une klabe bat badu, zalantzarik gabe hirugarren etapa da; nerabearoarekin bat egin ohi duena. Izan ere, pentsamendu formalaren garapenaren ondorioz, norbanakoak identitate krisia bizi du, eta bere buruari erreferentzia egiten dioten galderei erantzuten ahalegintzen da (Alcaide, 2009 in Cazalla eta Molero, 2013: 4); hau da, izaera definitzea bilatzen du, gutxika etapa diferentziatuago eta ez horren orokor batera pasaz (Cazalla eta Molero, 2013). Horrez gain, gainontzekoengatik positiboki estimatua eta maitatua izatea bihurtzen da bere kezka nagusi, eta, ondorioz, testuinguru sozialak pisu handia hartzen du (Fernández eta Goñi, 2008).

Norbanako bakoitzak baldintzatzaile biologiko eta psikologiko desberdinen ondoriozko heltze erritmoa duenez, azken etapa honi erantzuten dion nerabearorako adina zehaztea lan zaila suertatzen da. Hala ere, hamar eta hamalau urte bitartean kokatu ohi denez (Bataller, 2016), Lehen Hezkuntzako azken urteak autokontzeptuaren eraketarako esangura berezikoak direla esan daiteke. Izan ere, prozesu honen bigarren eta hirugarren etapen arteko trantsizio unean, kanpo norbanakoaren eta barne norbanakoaren etapen artean, kokatzen dira.

#### **3.1.4. Autokontzeptua neurtzeko tresnak**

Historian zehar, konstruktoa ulertzeko estrukturaren baitako eruedetan sailkatu daitezkeen hainbat tresna sortu izan dira. Hori dela eta, guztiak banan-banan aztertzea luze suerta litekeenez, jarraian dagoen taulan historikoki ezagunenak direnak sailkatu dira, autokontzeptua dimentsio bakarreko (B) edo dimentsio anitzeko (A) konstrukto bezala ulertzen duten eta aplikazio adina dela eta Lehen Hezkuntzan erabili daitezkeen (☑) edo ez (☒) adieraziz.

## 1. Taula<sup>1</sup>

Historian zehar autokontzeptua neurtzeko erabilitako tresna ezagunen laburpena.

DATA ETA AUTOREA(K)		TRESNA	DIM	LH
1964	Bledsoe	Bledsoe Self-Concept Scale	B	<input checked="" type="checkbox"/>
1965	Rosenberg	RSE (Rosenberg Self-stream Scale)	B	<input checked="" type="checkbox"/>
1969	Piers-Harris	PHCSCS edo PH (Piers-Harris Children's Self-Concept Scales)	B	<input checked="" type="checkbox"/>
1972	Frymier	Faces Scale	A	<input checked="" type="checkbox"/>
1977	Soares eta Soares	API (Inventario de Percepción Afectiva)	A	<input checked="" type="checkbox"/>
1977	Martinek eta Zaichkowsky	MZSCS (Martinek-Zaichkowsky Self-Concept Scale for Children)	A	<input checked="" type="checkbox"/>
1979	Joseph	JPPSST (Joseph Preeschool and Primary Self-Concept Screening Test)	A	<input checked="" type="checkbox"/>
1982	Harter	PCS (Perceived Competence Scale for Children)	A	<input checked="" type="checkbox"/>
1984	Harter eta Pike	PSCA (Pictorial Scale of Perceived Competence and Social Acceptance for Young Children)	A	<input checked="" type="checkbox"/>
1985	Harter	SPPC (Self-Perception Profile for Children)	A	<input checked="" type="checkbox"/>
1988	Tennessee de Toid eta Fitts	TSCS (Tennessee Self-Concept Scale)	A	<input checked="" type="checkbox"/>
1988	Marsh eta best.	SDQ (Self-Description Questionnaires)	A	<input checked="" type="checkbox"/>
1992	Bracken	MSCS (Multidimensional Self-Concept Scale)	A	<input checked="" type="checkbox"/>
1992	Boersma eta Chapman	PASS (Perception Of Ability Scale for Students)	A	<input checked="" type="checkbox"/>
1999	Villa eta Auzmendi	PAI (Percepción del Autoconcepto Infantil)	B	<input checked="" type="checkbox"/>
2014	Garcia eta Musitu	AF-5 (Autoconcepto Forma 5)	A	<input checked="" type="checkbox"/>

(Egilearen sorrera propioa Fernández eta Goñi (2008) eta Gálvez (2016) lanetan oinarrituta)

Aurreko taulan antzeman daitekeen bezala, Lehen Hezkuntzako haurren autokontzeptua neurtzeko erabili daitezkeen Bledsoe Self-Concept Scale, PH, Faces Scale, MZSCS, JPPSST, PCS, PSCA, SPPC, SDQ, MSCS, PAI eta AF-5 izan dira. Hala ere, lehenengo biek eta azken aurrekoak ez dute autokontzeptua dimentsio anitzeko konstrukto gisa aintzat hartzen, eta konstruktoa egun babesten den eremuan oinarriturik ebaluatzen duten tresna gehienak ingelesez sorturik daude, edo, askoz jota, atzerriko beste hizkuntzetara itzuliak.

Euskarara itzuliak topa ditzakegun bakarrak Marshen Self-Description Questionnaires eta Garcia eta Musituren Autoconcepto Forma 5 dira. Nahiz eta tresna bakoitzak bere ezaugarri propioak izan, biak ala biak Shavelson, Hubner eta Stantonen (1976) dimentsio anitzeko ereduaren teoriapen sorturik daude, eta, hortaz, autokontzeptua dimentsio orokor baten baitan hierarkikoki antolatutik dauden dimentsio ez ortogonal baina bereizgarri desberdinen bidez errepresentatzen dute (García eta Musitu, 1999).

<sup>1</sup> Lana burutzeko espazio murriztagatik orrialde honetan taula formatu txikituan ageri da; ulerkortasuna bermatze aldera testuarekin batera egon behar duelako. Hala ere, 1. eranskinean tamaina handiagoko taula topa liteke.

Ikerketa honetan, argitaratu zenetik bere fidagarritasuna babestu duten ikerketa ugari dituen (Busso, 2003; Martínez, Musitu, García eta Camino, 2003; Tomás eta Oliver, 2004; Musitu eta García, 2004; Esteve, 2005; Martínez eta García, 2007; García eta Gracia, 2009) eta oso tresna erabilia bihurtu den García eta Musituren tresna baliatuko da; AFA (Autoconcepto Forma A) galdetegian oinarrituta sorturiko Elosua eta Lopez-Jaureguiren euskarazko itzulpen bertsio hobetua (García eta Musitu, 1999).

Galdetegi honek dimentsio akademikoa, soziala, emozionala eta familiakoaz gain dimentsio fisikoa barne hartzen du, eta, hori dela eta, dimentsio guztiei erreferentzia egiten dioten itemak ditu; zehatzago esatearren sei item dimentsio bakoitzeko. Beraz, guztira hogeita hamar itemdun estruktura pentadimentsionaleko galdetegia erabiliko da, aplikazio, zuzentze eta interpretazio errazekoa eta zutabe bakoitzeko puntuazioak helaraztearen ondorioz pertsonaren garapen egoki eta ongizaterako aspektuen erabateko neurtzea ahalbidetzen duena (García eta Musitu, 1999).

### **3.2. Komunikazioa**

Bizi garen gizartean komunikazioa garrantzia handiko elementua izatearen ondorioz (Crespo, 2011), hainbat izan dira urteetan zehar elementu honen inguruko ikerketak burutu dituzten diziplinak, aipagarrienak filosofia, soziologia, komunikazioa eta psikologia izanik. Hauek guztiek komunikazioan bizi garela babesten dute, ez komunikatzea ezinezkoa dela dioten axioma konpartituz (Domínguez, 2013) eta komunikazioa gizartearen baitan bizitza eraikitzeke elementu ezinbestekoa dela defendatuz (Rizo, 2009 in Domínguez, 2013: 13).

#### **3.2.1. Definizioa eta sailkapena**

Komunikazio hitza latineko "communicare" aditzetik eratortzen den "communicatio" hitzetik dator. Beraz, "elkarbanatu", "elkar trukatu" eta "partekatu" aditzei erreferentzia egiteaz gain, "publiko" zein "ororen" esan nahi duen "communis" hitzari loturik ere ageri da. Hortaz, nahiz eta Kaplúnen (1988) hitzetan komunikazioa definizio ugari onartzen dituen kontzeptua izan (Kaplún, 1988 in Crespo, 2011: 3), etimologikoki gure ideia zein pentsamenduak besteekin harremanetan jartzeari eta elkarbanatzeari egiten dio aipamen; informazioa transmitituz pentsatu, sinetsi edo sentitzen duguna besteekin konpartitzeari (Fernández eta Gordon, 1990 in Gauna, 2004: 42).

Hala, Prietok (1991) komunikazioaren lau maila -intrapertsonala, interpertsonala, erdibidekoa eta kolektiboa- bereizten dituen arren (Prieto, 1991 in Gauna, 2004: 46), jatorri

etimologikoak komunikazio interpertsonalari egiten dio erreferentzia. Izan ere, komunikazio mota honek postu zentrala du gure bizitzan, eta, ondorioz, bizirik irauteko faktore ezinbesteko gisa kontsideratzen da; norberaren eta besteen inguruko ezagutzak lortuz (Satir, 2004 in Orbegozo, 2015: 57) (Pasquali, 1980 in Gauna, 2004: 50) norberaren nortasuna eratzeko eta gizartean bizitza eraikitzeke oinarritzko faktore gisa (Rizo, 2009 in Domínguez, 2013: 13). Are gehiago, hain du bizitzan postu zentrala komunikazio interpertsonalak, non gure gizarteak komunikazio mota honengatik jasotzen duen komunikazioaren gizartearen izendapena (De La Torre, 2016).

Komunikazio honen presentzia edo ausentziaren arabera, komunikazio estilo desberdinak zehazten dira (De La Torre, 2016). Gonzálezen hitzetan komunikazio estiloa aurreko ikaskuntzen emaitza da; beste pertsona batzuekiko tratuan edo komunikazio interpertsonaletan izandako arrakasten zein porrotetako aurreko esperientzien ondorioa. Estilook, mezua nola esaten den eta nola transmititzen den inplikatzeko dutenez, osagai garrantzitsu dira komunikazio prozesua interpretatu eta komunikatu nahi dena ulertzeko (Norton eta Petterfrew, 1979 in Casapia, 2018: 43).

Irudikatzeke aurkezpen eredu paradigmaticoaren araberako edota ezarritako ezaugarrien baitako definizioaren arabera, hainbat izan dira historian zehar zerrendatu diren estiloak (Del Greco, 1983 in De La Torre, 2016: 6). Miller, Nunally eta Wackmanek (1976) zein Nortonek (1978), esaterako, ahozko komunikazio estilo desberdinak deskribatzen dituzte; lehenengoek lau -lagunkoia, kontrolatzailea, gogoetatsua eta komunikatzailea- eta bigarrenak bederatzi -menderatzailea, dramatiko, liskartia, animatua, txundigarria, erlaxatua, arretatsua, irekia eta lagunkoia-. Hawkins, Weisberg eta Rayk (1980), bestetik, lau mota -kontrolatua, konbentzionala, espekulatiboa eta lagunkoia- desberdintzen dituzte, eta Satirrek (2002) pertsonaren jarreretan oinarritutako bost -baretzailea, leporatzailea, neurtzailea, distraitzailea eta argigarria- (Orbegozo, 2015).

Yagoseski (1998), Estanqueiro (2006) eta Vérticek (2009), aldiz, bat egiten dute komunikazio estiloen sailkapenean; estilo agresiboa, pasiboa eta asertiboa zerrendatuz. Nahiz eta hainbat autorek sailkapen honi estilo agresibo-pasiboa gehitu izan dioten, tradizionalki hiru estilo hauen existentzia babestu izan da, estilo agresiboa besteen asebetetzeaz arduratu gabe nork bere helburuak lortzeko baliatzen den estilo gisa definituz, estilo pasiboa konfrontazioa eta arreta erakartzea saihesten duen estilo gisa aipatuz eta estilo asertiboa portaera pasibo, oldarkor edo manipulatzailerara jo gabe, segurtasunez adierazteke gai izateak dakarren komunikazio estilo natural, argi eta zuzenen bezala deskribatuz (Geovany, 2016). Gainera, lehenengo bi estiloak komunikazio

estilo ez trebe bezala eta azkena estilo trebe bezala sailkatu izan dira eta bakoitzari jarraian islatzen diren ezaugarri adierazkor eta efektu zehatz batzuk esleitu izan zaizkio (Orbegozo, 2015; Cid, 2016; De La Torre, 2016).

## 2. Taula<sup>2</sup>

*Hiru komunikazio estilo tradizionalen ezaugarri eta efektuen laburpena.*

AGRESIBOA		PASIBOA		ASERTIBOA	
EZAUGARRIAK	EFEKTUAK	EZAUGARRIAK	EFEKTUAK	EZAUGARRIAK	EFEKTUAK
Sentimenduen adierazpen esplizitu eta bortsakoa; aurpegiera haserretu eta tentsioa; begirada desafiatzailea; ahots altua eta garrasia; gehiegizko edo mehatxuzko keinuak; hizkuntza agresiboa (txantxa bat izan behar du, ez baduzu egiten..., zure erruagatik, hobe duzu, ... dirudizu, behar duzu...)	Pertsonarteko gatazkak; errua eta frustrazioa; kontrol eza eta bakardadea; norberaren irudi pobrea; norbera mintu edo kaltetzea; aukera galera; tentsioa eta haserrea; autoestima baxua dute eta gainerakoak gutxiesten dituzte.	Sentimenduen adierazpen argi eta zuzenik eza; aurpegiera ikaratu, lotsati eta tristeza; begirada saiheskorra; ahots dardaratsua eta lasaia; sorbalda eroriak eta gorpuzkera makurtua; keinu desegokiak; hizkuntza zalantzia (agian, suposatzen dut, axola dizu, beno, ez kezkatu...)	Pertsonarteko gatazkak; depresioa eta antsietatea; babes eza eta bakardadea norberaren irudi pobrea; norbera mintu edo kaltetzea; aukera galera; tentsioa eta haserrea; autoestima baxua dute eta errespetua merezi ez dutela sinetsi arren gainerakoak errespetatzen dituzte.	Sentimenduen adierazpen argi eta zuzena; aurpegiera lasaia eta atsegina; begirada zuzena; ahots argi eta irmoa; gorpuzkera zuzena; keinu egokiak; hizkuntza egokia (sentitzen naiz, ulertzen dut, gustatuko litzaidake...)	Arazoak konpontzea; kontrola eta asebetetasuna; gainerakoekin eta norberarekin gustura sentitzea; aukerak sortu eta egitea; onurak norbera eta besteentzat; autoestima ona dute eta norbanako orok errespetu eta begirunea merezi dutela onartzen dute.

*(Egilearen sorrera propioa Cid (2016) eta De La Torreren (2016) lanetan oinarrituta)*

Hortaz, ezaugarri eta efektuak aztertuz, sailkapen trebearen barruan estilo aipatu bakarra dela kontsideratuz eta Aubert, García eta Racionerok (2009) ohartarazitakoa aintzat hartuz, pertsonen eta gizartearen aberaste eta haztea sustatzen duen benetako komunikazioa elkarrizketazkoa dela esan daiteke; ahots guztiak onartzen dituen izaera horizontaleko komunikazioa (Aubert, García eta Racionero, 2009 in Crespo, 2011: 3) edo komunikazio asertiboa.

Hori dela eta, psikologian komunikazioa zein asertibitatea kalitatezko harreman interpersoneletarako ezinbesteko gaitasun sozial gisa definitzen dira; norberaren harremanetan eta besteekiko zein norberarekiko eskubideen errespetuan laguntzen duten funtzionamendu arau gisa (Babarro, 2019).

<sup>2</sup> Lana burutzeko espazio murriztagatik orrialde honetan taula formatu txikituan ageri da; ulerkortasuna bermatze aldera testuarekin batera egon behar duelako. Hala ere, 2. eranskinetan tamaina handiagoko taula topa liteke.

### 3.2.2. Gaitasun sozialen garapena Lehen Hezkuntzako azken zikloan

Monjas eta Gonzálezen (1998) arabera, komunikazioa eta asertibitatea bezalako gaitasun sozialek ez dute berezkitasun innatorik, eta sozializazio prozesuan zehar garatzen dira; gizarte harremanen bidez (Monjas eta González, 1998 in González, 2014: 11). Hori dela eta, gaitasunok gizarte trebetasun gisa ere izendatzen dira, pertsonetikiko elkarrekintza eta mekanismo desberdinak -zuzeneko esperientzia, behaketa, hitzezko ikaskuntza eta feedbacka- ezinbesteko baitira hauen lorpenetarako (González, 2014).

Eskolaurreko etapan ikaskuntzak berdinekin eta helduekin harremanak izateko arauak eta ereduak ardatz hartzen ditu, eta gurasoek haurren portaerak mugatu eta arautzeari esker, haurra giza trebetasunak garatuz eta gizarteko kide bilakatzen hasten da. Hala, hiru urtetik aurrera besteen ikuspuntu, pentsamendu, sentimendu eta asmoak ikusteko gai izatetik gutxika enpatia sentitzera eta negoziatzera eboluzionatzen dute. Honen ondorioz, lau eta bost urte inguruan berdinen iritziak baloratzen eta besteen onarpenari garrantzia ematen hasten dira, harremanen nolakotasunaren arabera elkarrekintza eta arbuioa eragiten duten estiloak bereiziz. Eskolaurrearen amaieran, bost eta sei urte bitartean autokontrola eta emozioen adierazpenaren hobetzearen ondorioz, egokitze estrategiak areagotu eta elkarrekintzen aberastea ematen da, interakzioetako haserreak eta jarrera oldarkorren ordez bestelako estrategien -itxaronaldia, negoziazioa edota lankidetzak- agerpena emanez (Buj, 2017).

Eskola etapan, egozentrismoa gainditzearen eta interakzioetan hitzezko osagaiak pisua hartzearen ondorioz, gizarte portaerak eta sentimenduak ulertzeko gizarte trebetasun konplexuagoak erabiltzen hasten dira, eta berdinen taldean onartua sentitzearen garrantzia areagotzen da. Hala ere, adiskidetasuna noranzko bakarreko ereduak da sei eta zortzi urte bitartean, eta ez da elkarrekikotasunaren kontzientzia sortzen zortzi urte ingurura arte. Etapa honen amaieran, hamar eta hamaika urte inguruan, adiskidetasunak esanahi psikologikoagoa hartzen du, lagunen ezaugarri psikologikoak eta sentimendu eta pentsamendu trukeak baloratzen hasten direlarik (Buj, 2017).

Lehen Hezkuntzaren azken urteetan, eskola etaparen amaieran eta nerabezaroaren atarian, gizarte trebetasunak norbanakoak bere buruaz, besteez eta errealitateaz duten ikusmoldean eragiten dute, eta aldaketa fisiko eta psikiko hauek nortasuna eta gorputz eskema berrantolatzen hastea suposatzen dute. Hortaz, banakoak ezinbesteko izango ditu gizarte trebetasunak bere burua eta ingurua ezagutzeko eta onarpen soziala lortzeko (Buj, 2017).



### 3.2.3. Komunikazioa neurtzeko tresnak

Historian zehar komunikazioa neurtzen duten tresna ugari sortu izan dira, ohikoenak familiaren baitan komunikazioa neurtzeko balio dutenak izanik. Hala ere, hauetako gehienek komunikazioa beste zenbait aldagairekin harremanetan aztertzen dute, elementu honi item zehatz gutxi batzuk soilik eskainiz, eta gutxi dira komunikazioa zehazki neurtzeko topaturiko tresnak. Guztietan sakontzea luze suertatuko litzatekeenez, jarraian dagoen taulan hauetako batzuk zerrendatu dira, komunikazioa bere kasa (☑) edo bestelako aldagaiekin batera (☒) aztertzen dituzten tresnak bereiziz.

#### 3. Taula<sup>3</sup>

*Historian zehar familia komunikazioa neurtzeko erabilitako tresna ezagunen laburpena.*

DATA ETA AUTOREA(K)	TRESNA	SOILIK KOMUNIKAZIOA	
1982	Barnes eta Olson	CA-M/CA-P (Cuestionario de Evaluación de la Comunicación Familiar)	☑
1983	Epstein, Baldwin eta Bishop	FAD (Family Assessment Device)	☒
1985	Kazdin eta Rogers	MCBS (Management of Children's Behavior Scale)	☒
1988	García, Gracia eta Musitu	CF (Escala de Comunicación Familiar)	☑
1990	Bricklin	PASS (Parent Awareness Skills Survey)	☑
1991	Bricklin eta Elliot	PPCP (Parent Perception of Child Profile)	☒
1994	Palacios	4E (Escala de Evaluación de los Estilos Educativos)	☒
1994	Gerard	PCRI (Parent-Child Relationship Inventory)	☒
1996	Shelton, Frick eta Wootton	APQ (Alabama Parenting Questionnaire)	☒
2001	Bersabé, Fuentes eta Motrico	EA (Escala de Afecto)	☒
2001	Roa eta Del Barrio	PCRI-M (Parent-Child Relationship Inventory)	☒
2001	Henry, Tolan eta Gorman-Smith	FRM (The Family Relationship Measure)	☒
2002	Colahan, McWayne, Fantuzzo eta Grim	PBQ-HS (Parenting Behavior Questionnaire-Head Star)	☒
2007	Oliva, Parra, Sanchez-Queija eta Lopez	EPP (Escala para la Evaluación del Estilo Parental)	☒

*(Egilearen sorrera propioa Bisquerten (2017) lanean oinarrituta)*

Hezkuntzari dagokionean, ordea, zerrenda hau ia hutsik gelditzen da. Izan ere, irakasleak ikasgelan duen komunikazio estiloarekin zerikusia duten bina azterlan<sup>4</sup> topatu diren arren, ez dira eskolako komunikazioa eskusiboki neurtzen duten tresnak topatu. Hori dela eta, ikerketa honetan familiako komunikazio hutsa neurtzeko erabili daitezkeen tresnetatik -CA-M/CA-P, CF eta PASS- Barnes eta Olsonen (1982) tresna hautatu eta moldatu da. Izan ere, bigarren zein hirugarrena gurasoen parte hartzearekin burutzeko pentsaturik dauden bitartean, CA-M/CA-Pk moldatzeko, aplikatzeko eta zuzentzeko erraztasunak eskaintzen ditu.

<sup>3</sup> Lana burutzeko espazio murriztagatik orrialde honetan taula formatu txikituan ageri da; ulerkortasuna bermatze aldera testuarekin batera egon behar duelako. Hala ere, 3. eranskinean tamaina handiagoko taula topa liteke.

<sup>4</sup> Irakasleak ikasgelan duen komunikazio profilararekin zerikusia duen caracoboko Unibertsitatean egindako azterketa bat eta Mexikoko Unibertsitate Pedagogiko Nazionalak egindako azterlan bat (Domínguez, 2013).

Galdetegi honen jatorrizko bertsioak familiaren komunikazio maila bi faktoreen egituraz -irekiera eta komunikazio arazoaren presentzia- ebaluatzen du hogei itemen bidez. Erabili den Espainiako bertsioan, ordea, eskalak hiru faktoreko egitura-komunikazio irekia, ofentsiboa eta saiheskorra- du, guraso bakoitza bere aldetik hartuz (Bisquert, 2017). Hori dela eta, euskarara itzulia dagoen moldaerak azken egitura berdin hau jarraitzen du, guraso bakoitzarentzako zutabe bana aurkeztu ordez irakasleari dagokion zutabe bakarra izanik.

### **3.3. Autokontzeptua eta komunikazioaren arteko harremana**

Aurretik sakondu bezala, autokontzeptua norbanakoak bere buruarekiko, bere ezaugarriekiko, bere mugekiko eta gainerakoekin interakzionatzeko ahalmen potentzialaz duen irudia da (Vereau in Reyes, 2003: 42); norberak bere buruarekiko duen pertzepzioa. Hala ere, "ni ispilua"-ren teoriak babesten duen bezala, honen sorreran alderdi sozialek pisu handia dute, gure nia besteek gutaz dituzten ideien ondorioz sortzen baita (Sanfeliciano, 2018). Hortaz, autopertzepzio hau analisi, balorazio eta esperientzia propioaren ondorio izateaz gain, inguruko esperientzia eta harremanengatik baldintzatua ageri da, beste pertsona esanguratsuengandik jasotako feedbackaren integrazioaren emaitza ere izanik (Reyes, 2003).

Gizaki sozialek izatearen ondorioz feedback horiek guztiak komunikazio prozesuetan ematen diren interakzio eta elkarrekintzen bidez jasotzen ditugu, gure autokontzeptuak besteekin partekatzeko arriskua hartzen dugunean (Mcintee, 1999 in Domínguez, 2013: 11). Hori dela eta, komunikazio prozesua niaren garapenerako ezinbesteko baldintza suertatzen da (Gauna, 2004), harremanentze premiak gidatuta nor bere burua besteekin partekatzean, norbanakoak bestea ezagutzeaz gain bere burua ere ezagutzen baitu. Beraz, autokontzeptu egoki bat lortzeko, ezinbestekoa da komunikazio prozesuak konfiantzazko giro batean ematea, banakoak benetan den edo izan nahi duen pertsona esploratzeko aukera izan dezan; bere nia garatzeko edota lantzeko aukera izan dezan (Gauna, 2004; Domínguez, 2013).

Laburbilduz, autokontzeptua eta komunikazioa elkarri estuki loturik dauden bi kontzeptu dira, eta, ondorioz, komunikazio-estrategia egokiak menderatzeak harreman afektiboetarako oinarri egokiak eraikitzen eta gizarteak eskatzen dituen funtzioetara egokitzen laguntzen digunez, haurrek autokontzeptu egokia garatu dezatela nahi izatekotan ezinbesteko izango da interakzio egoki eta koherenteak eskaintzea.

### 3.4. Irakaslearen egitekoa

Gure gizartean komunikazioak haurren gertuko helduengan, irakasle eta gurasoengan, interes berezia piztu izan du hainbat arrazoiengatik. Alde batetik, lehenengo urteetan hurrekin sorturiko lotura eta atxikimenduek ondoren eraikiko diren harremanen oinarria eratzen dutelako eta etorkizuneko haurren elkarreraginak orientatzen dituztelako, eta bestetik, jakina delako norbanakoaren irudian eragin handiena duten pertsonak norbanakotik hurbilen bizi direnak eta hauekin gehien interakzionatzen dutenak direla. Hortaz, Lehen Hezkuntzako garaira arte interakzio ohiko eta esanguratsuenak familia eta eskola testuinguruetan ematen direnez eta hauek, ondorioz, autokontzeptuaren garapenean eragiten dutenez, bi instituzio sozializatzaileron kezka haurraren doitze psikologikoan zeresan erabakigarria izatearen ondoriozkoa da; txikien garapenean duten ardura handiaren ondoriozkoa (Estévez, Herrero eta Musitu, 2005; Crespo, 2011; Castañeiras, Martínez eta Posada, 2011; Domínguez, 2013).

Hainbat autorek familia bere kideei segurtasuna, autoestima eta autokonfiantza emateko gaitasuna duen eta afektibitatean oinarrituta dagoen sistema gisa kontsideratu dute; komunikazio eta zaintza bidez desoreka psikologikoetatik babestu eta autoirudia zein autoestimua duintzen duen sistema gisa. Hortaz, familian zaintza gauzatzeko komunikazioa funtsezkoa bada, are gehiago izango da ikasgelan, irakasleak ikaskuntza-irakaskuntza prozesua gauzatzeko ezinbesteko elementu baldin badu. Hori gutxi balitz, haurrek bertan igarotzen duten denbora ugariagatik, irakasleek euren ikasleekin egunero mila interakzio izatera hel daitezke (Jackson, 1992 in Gauna, 2004: 78) eta, hortaz, hezitzaileak elkarreraginok egoki kudeatuz gero arrakasta suposatu diezaioke bai eskola prozesuari baita euren ikasleen etorkizuneko komunikazioaren erabilerari (Gauna, 2004); hau da, irakasleak komunikazio moduak hobetzea eta teknikak egoki erabiltzea ahalbidetu dezake, beste funtzio guztien arrakasta aukerak areagotuz.

Hau honela, agerian gelditzen da irakaslearen komunikazio profilak eragin zuzena duela ikasleen ikaskuntza prozesuan (Domínguez, 2013), eskola esparruan hurrekin hartu eman gehien dituen subjektua izanik, etorkizuneko ikasleen harremanak sortzeko eredu eta autokontzeptua garatzeko testuinguru sortzaile esanguratsu bilakatzen baita. Horregatik, ezinbesteko suertatzen da eredu izateaz gain elkarrizketazko komunikazioa edo komunikazio asertiboa baliatu dezala; honek eragin positiboa izango baitu haurren autokontzeptuan. Izan ere, komunikazio estilo hau erabilia, bi aktoreak gertuko harremanean kokatuko dira, norberak bere nia esploratu eta adierazteko, norberaren izana eta existentziari zentzua emango dioten proiektu edo izate pertsonala eraikitzeko

eta kalitate eta asebetetze maila gehiagoko interakzio komunikatiboak gauzatzeko konfiantza giro bat ahalbidetuz (Domínguez, 2013).

## 4. HELBURUAK

Ikerlan honek hainbat helburu ditu:

1. Autokontzeptuaren eta komunikazioaren inguruko kontzeptualizazioaren berrikuspen teorikoa egitea.
2. Errealitate espezifiko bat ezagutze aldera, bi galdetegiren bidez Lehen Hezkuntzako hiru gelatan bi aldagai psikosozialak -autokontzeptua eta komunikazioa- neurtu eta informazioaren analisi bat egitea.
3. Lortutako informazio eta emaitzetan oinarrituz hezkuntza arloko hausnarketa sustatzea, etorkizunean ikastetxetik ikasleen beharrei erantzuteko gakoak eskuratzeko.

## 5. METODOA

### 5.1. Lagina

Lan honetako ikerketa Euskal Herriko hiriburu den Gasteizko hiru eskolatan -1, 2 eta 3 gisa aipatuko dira- burutu da; guztiak publikoak eta maila sozioekonomiko desberdineko bi auzotan kokaturikoak. Hala, hurrenez hurren, galdetegiak ikastetxe bakoitzeko Lehen Hezkuntzako hirugarren zikloko seigarren gelako maila banatan pasa dira, guztira lagina 64 ikaslek eta euren tutoreek osatu dutelarik.

4. Taula<sup>5</sup>

*Ikasleen laginaren ezaugarriak.*

	Adina	1 ESKOLA		2 ESKOLA		3 ESKOLA		GUZTIRA		Totala	%
		Kopurua	%	Kopurua	%	Kopurua	%	Adinka	%		
EMAKUMEAK	10	0	%0	1	%14,29	2	%14,29	3	%10,35	29	%45,31
	11	8	%100	6	%85,71	11	%78,57	25	%86,2		
	12	0	%0	0	%0	1	%7,14	1	%3,45		
GIZONAK	10	0	%0	1	%14,29	0	%0	1	%4,17	24	%37,5
	11	10	%100	5	%71,42	6	%85,71	21	%87,5		
	12	0	%0	1	%14,29	1	%14,29	2	%8,33		
BESTEBAT/ ERANTZUNIKIEZ	10	0	%0	0	%0	0	%0	0	%0	11	%17,19
	11	1	%100	6	%100	3	%75	10	%90,9		
	12	0	%0	0	%0	1	%25	1	%9,1		
<b>GUZTIRA</b>		19	%29,69	20	%31,25	25	%39,06			<b>64</b>	<b>%100</b>

<sup>5</sup> Ikus 4. eranskina: *Ikasleen laginaren ezaugarriak PSPPn.*

## 5. Taula<sup>6</sup>

*Irakasleen laginaren ezaugarriak.*

	1 ESKOLA		2 ESKOLA		3 ESKOLA		GUZTIRA	
	Kopurua	%	Kopurua	%	Kopurua	%	Kopurua	%
EMAKUMEAK	1	%100	1	%100	0	%0	2	%66,67
GIZONAK	0	%0	0	%0	1	%100	1	%33,33
BESTE BAT / ERANTZUNIK EZ	0	%0	0	%0	0	%0	0	%0
GUZTIRA	1	%100	1	%100	1	%100	3	%100

### 5.2. Aldagaiak eta hauen neurketarako erabilitako tresnak

- **Aldagai sozio-demografikoak:** Adina, sexua eta ikastetxea.
- **Aldagai psikosozialak:** Autokontzeptua eta komunikazioa. Ikerketa lan hau burutzeko, zientifikoki babesturiko tresnetan oinarrituz autokontzeptua (1) eta eskolako komunikazio estiloak (2) neurtzeko bi tresnaz erabili dira:

(1) *Autokontzeptua*<sup>7</sup>. Garcia eta Musituren (1999) AF-5 tresnaren euskarazko itzulpenean (Elosua eta López-Jauregui, 2008; Elosua eta Muñizek, 2010) oinarrituta, likert eskala baten bidez autokontzeptua neurtzen duen 30 itemeko galdetegi bat sortu da. Hala, 1etik (guztiz desados) 5era (guziz ados) haurren autopertzepzioak ebaluatu ziren hurrengo dimentsioetan: familiakoa, (ad. "Nire gurasoengatik maitatua sentitzen naiz"), akademikoa (ad. "Ikasle ona naiz"), soziala (ad. "Lagunak erraz egiten ditut"), emozionala (ad. "Gauza batzuetaz beldur naiz") eta fisikoa (ad. "Fisikoki nolakoa naizen atsegin dut").

(2) *Eskolako komunikazioa*<sup>8</sup>. Seme-alaba eta gurasoen arteko komunikazioa neurtzeko Barnes eta Olsonen (1982) ebaluazio eskalan oinarrituta, 1etik (inoiz ez) 5era (beti) ikasle-irakasleen arteko komunikazioa neurtzeko 20 itemeko bi galdetegi sortu dira. Bi galdetegiak item berdinak dituzten arren desberdin formulaturik planteatu dira, lehenengoak ikasleek irakaslearen komunikazioarekiko duten sentsazioa neurtu bitartean (ad. "Irakasleari hitz egiten diodanean kasu egiten dit") bigarrenak irakasleak bere ikasleekiko darabilen komunikazioa neurtu dezan (ad. "Ikasleek hitz egiten didatenean kasu egiten diet"). Hala ere, bigarrenari, lehenengoari ez bezala, datu kualitatiboak gehitzeko aukera eskaintzen duen oharrentzako zati bat gehitu zaio.

<sup>6</sup> Ikus 5. eranskina: *Irakasleen laginaren ezaugarriak PSPPn.*

<sup>7</sup> Ikus 6. eranskina: *Ikasleen autokontzeptua neurtzeko galdetegia.*

<sup>8</sup> Ikus 7. eranskina: *Ikasle eta irakasleen eskolako komunikazioa neurtzeko galdetegiak.*

### 5.3. Prozedura

Ikastetxeetako zuzendaritza talde eta irakasle tutoreekin kontaktuan jarri, ikerketaren helburuak eta prozedura plazaratu eta parte hartzeko baiezkoa jaso ostean, beharrezko baimenak<sup>9</sup> bete eta datu bilketari bide eman zaio. Datu bilketa hau eskola orduetan eta gelako testuinguruan burutu da, ikasleen espazio ezagunean.

Ikerketa honetan, ikasleek bete beharreko bi galdetegidun txostena eta irakaslearentzako galdetegia betetzeko eskola bakoitzak emandako ordu erdiko saio bana erabili da. Saio hauen hasieran, aurkezpenaren ostean, ikasleei ikerketaren berri eman eta haien laguntza eskatu zaie, ikerketaren zuzentasunarengatik euren erantzunen zintzotasunaren beharra azpimarratuz eta datuak anonimoki tratatuak izango direla argituz.

Hala, txostenaren hasierako datuak -ikastetxea, ikasgela, adina eta sexua- betetzeko tartea eman ostean, galdetegiaren azalpenak tarteka -lehenengo bata eta gero bestea- emango direla azaldu eta galdetegiak betetzeko irizpideen berri eman zaie. Behin dena argi, lehenengo galdetegiaren azalpena burutu eta item guztiak banan-banan irakurri dira, guztiak ondo ulertzen direla bermatuz. Hau eginda, denek batera baina banaka lehenengo galdetegia betetzeko eskatu zaie. Guztiak amaitzean, prozedura berdina burutu da bigarren galdetegiarekin, eta hau amaitzean txostenak gutun-azal batean bildu dira. Horrez gain, ikasleek datuak bete bitartean, irakasleari bere galdetegia eskuratu zaio, ikasleek ikerketan parte hartu bitartean bete dezan.

### 5.4. Emaitzen azterketa eta informazioaren trataera

Aurreko prozeduraren bitartez lorturiko informazioa modu kuantitatibo edo estatistikoan tratatu da, bi programa desberdinen bidez: 1) Libre Officeko kalkulu orrien Calc programarekin eta 2) PSPP<sup>10</sup> 0.8.3 datuen analisirako programaren azkeneko bertsioarekin.

---

<sup>9</sup> Ikus 8. eranskina: *Galdetegia pasatzeko baimen eskaera*.

<sup>10</sup> PSPP datuen analisirako software askeko aplikazioa da. Hau SPSS software jabedunaren edo pribatiboaren ordezkari askea da.

Lehenik, Libre Officeko kalkulu orri programan datu guztiak sartu eta galdetegi bakoitzaren batz bestekoa kalkulatu da zenbakizko balio osoekin borobilduta; ikasle bakoitzaren autokontzeptuaren eta irakaslearekiko komunikazio sentsazioaren batz bestekoa zein irakasle bakoitzaren komunikazioaren batz bestekoa. Horretarako, zenbait itemek kontrako balorea izatearen ondorioz, emaitzek balio errealari erantzun diezaieten, jarraian datozen formulak aplikatu behar izan dira:

## 6. Taula

*Kalkulu orrian erabilitako formulen laburpena.*

GALDETEGIA	FORMULA	LEGENDA
IKASLEEN AUTOKONTZEPOTUA	$\frac{\left(\left[\frac{x}{20}\right] + \left(5 - \left[\frac{y}{10}\right]\right)\right)}{2}$	x=F+G+J+K+L+N+O+T+U+V+X+Y+Z+AC+AD+AE+AF+AH+AI <sup>11</sup> y=H+I+M+Q+S+R+W+AA+AB+AG <sup>12</sup>
IKASLEEN KOMUNIKAZIOA	$\frac{\left(\left[\frac{s}{11}\right] + \left(5 - \left[\frac{t}{9}\right]\right)\right)}{2}$	s=AK+AL+AM+AP+AQ+AR+AS+AW+AX+AZ+BA <sup>13</sup> t=AN+AO+AT+AU+AV+AW+BB+BC+BD <sup>14</sup>
IRAKASLEEN KOMUNIKAZIOA	$\frac{\left(\left[\frac{z}{11}\right] + \left(5 - \left[\frac{l}{9}\right]\right)\right)}{2}$	z=D+E+F+I+J+K+L+P+Q+S+T <sup>15</sup> l=G+H+M+N+O+R+U+V+W <sup>16</sup>

Bigarrenik, aurrekoa antolatu ondoren, kalkulu orrian bildutako datuak analisirako PSPP programan kopiatu dira, azterketa kuantitatibo sakonagoari bide emateko. Hala, estatistika deskriptiboaren bidez, autokontzeptua eta komunikazioaren batz bestekoak, adinaren, sexuaren eta ikastetxearen arabera alderatu dira, batz bestekoon arteko lotura sortu da eta item zehatzei erreparatu zaie.

<sup>11</sup> 1, 2, 5, 6, 7, 9, 10, 11, 15, 16, 17, 19, 20, 21, 24, 25, 26, 27, 29, 30 itemei dagozkien zutabeak.

<sup>12</sup> 3, 4, 8, 12, 13, 14, 18, 22, 23, 28 itemei dagozkien zutabeak.

<sup>13</sup> 1, 2, 3, 6, 7, 8, 9, 13, 14, 16, 17 itemei dagozkien zutabeak.

<sup>14</sup> 4, 5, 10, 11, 12, 15, 18, 19, 20 itemei dagozkien zutabeak.

<sup>15</sup> 1, 2, 3, 6, 7, 8, 9, 13, 14, 16, 17 itemei dagozkien zutabeak.

<sup>16</sup> 4, 5, 10, 11, 12, 15, 18, 19, 20 itemei dagozkien zutabeak.



## 6. EMAITZAK

Atal honetan autokontzeptua eta komunikazioa ikertzeko erabilitako galdetegi bidez lorturiko emaitza borobilduak aurkezten dira, 1etik (oso desegoki) 5erako (oso egoki) eskala batean sailkatuak. Analisi zehatzago bati bide eman nahian, emaitzak bi multzotan banatu dira. Hala, lehenik galdetegi bakoitzaren erantzunen batz bestekoak eta aldagai sozio-demografikoen arabera emaitzak aztertzen dira, eta, ondoren, bi galdetegietako emaitzen arteko alderaketa burutzen da.

### 6.1. Batz bestekoak eta aldagai sozio-demografikoen arabera emaitzak

Aurretik aipatu bezala, lehenengo atal honetan galdetegi bakoitzaren erantzunen batz bestekoak aztertzen dira, datuak aldagai sozio-demografikoen arabera aztertuz. Hortaz, jarraian datozen lerrootan hiru emaitza taulen irakurketa topatu daiteke; batz bestekoen, autokontzeptuaren eta komunikazioaren azterketa.

#### 7. Taula<sup>17</sup>

*Ikasleen autokontzeptu eta komunikazioaren batz bestekoak.*

	DESEGOKIA (2)		TARTEKOA (3)		EGOKIA (4)	
	Kopurua	Ehunekoa	Kopurua	Ehunekoa	Kopurua	Ehunekoa
AUTOKONTZEPTUA	2	%3,13	41	%64,06	21	%32,81
KOMUNIKAZIOA	2	%3,13	34	%53,13	28	%43,75

Batz bestekoei oratuz, 7.taulan ikus daitekeenez, laginaren %64,06ak "tarteko" autokontzeptua du; hau da, ikasleen gehiengoak bere autoirudia tarteko puntu batean kokatzen du. Hala, nahiz eta %32,81ak bere autokontzeptua maila apur bat altuago batean kokatu eta %3,13ak maila baxuago batean, ez dira "oso desegoki" edota "oso egoki" datuei erantzuten dieten ikaslerik topatzen. Horrez gain, komunikazioa aztertuz, lagina "tarteko" komunikazioaren eta komunikazio "egokiaren" artean nahiko orekaturik dagoela ikus daiteke; "tarteko" sentitzen duten ikasleen ehunekoa %53,13a izanik eta "egoki" sentitzen dutenen ehunekoa %43,75a. Hortaz, nahiz eta ikasleen gehiengoak irakaslearekiko komunikazio sentsazio "tartekoa" izan, asko dira honakoa "egokitzat" sentitzen dutenak. Aipagarria da oraingoan ere ez direla "oso desegoki" edo "oso egokiak" diren emaitzarik topatzen.

<sup>17</sup> Ikus 9. eranskina: *Ikasleen autokontzeptu eta komunikazioaren batz bestekoak PSPPN.*

## 8. Taula<sup>18</sup>

*Ikasleen autokontzeptua adin, sexu eta eskolaren arabera.*

		DESEGOKIA (2)		TARTEKOA (3)		EGOKIA (4)		GUZTIRA	
		Kopurua	Ehunekoa	Kopurua	Ehunekoa	Kopurua	Ehunekoa	Kopurua	Ehunekoa
BATAZ BESTEKOA		2	%3,13	41	%64,06	21	%32,81	64	%100
ADINA	10	0	%0	3	%75	1	%25	4	%100
	11	2	%3,57	35	%62,50	19	%33,93	56	%100
	12	0	%0	3	%75	1	%25	4	%100
SEXUA	E	0	%0	19	%65,52	10	%34,38	29	%100
	G	2	%8,33	17	%70,83	5	%20,83	24	%100
	X	0	%0	5	%45,45	6	%54,55	11	%100
ESKOLA	1	1	%5,26	10	%52,63	8	%42,11	19	%100
	2	0	%0	16	%80	4	%20	20	%100
	3	1	%4	15	%60	9	%36	25	%100

Autokontzeptu "egokiaren" baitan ehuneko altuenak emakume edo gizon gisa sailkatu ez diren ikasleetan (%54,55), 11 urteko haurretan (%33,93) eta 1. ikastetxeari (%42,11) erantzuten dioten partaideetan daude. Hala ere, adinari dagokionez desberdintasun txikia nabaritzen den arren (11 urtekoetan %33,93a den bitartean, 10 eta 12 urtekoetan %25era jaisten da), sexuan eta eskolan desberdintasunak ageriago suertatzen dira. Hala, sexu binarioan sailkatu gabe dauden ikasleen atzetik emakumezkoak topa daitezke %34,38arekin, gizonezkoen %20,83tik apur bat gorago. Bestalde, 1. ikastetxearen atzetik, elkarren artean %16ko desberdintasuna duten 3. ikastetxea (%36) eta 2. ikastetxea (%20) topa daitezke.

"Tarteko" autokontzeptuan, ordea, emaitzak guztiz desberdinak dira. Izan ere, 10 eta 12 urteko ikasleak (%75) nabarmentzen dira, baita gizonezkoak (%70,83) eta 2. ikastetxeko ikasleak (%80) ere. Kasu honetan, adinean nahiko oreka mantentzen den arren (10 eta 12 urtekoetan %75a den bitartean, 11 urtekoetan %62,50era jaisten da), sexuan eta zentroetan aldaketa gehiago nabaritzen da. Hala, gizonezkoen ehunetik hurbil topatu ditzakegu emakumeak (%65,52), baina nahiko aldenturik sexuan sailkatu gabeko ikasleak (%45,45). Bestalde, 2. eskolaren ehuneko 1. eta 3. eskoletakoekin alderatuz (%60 eta %52,63, hurrenez hurren), %20a inguru jaisten da.

Azkenik, autokontzeptu "desegokiaren" baitan, 11 urtekoak (%3,57), gizonezkoak (%8,33) eta 1. ikastetxekoak (%5,26) nabarmentzen dira; oso ehuneko txikiekin. Adina eta sexuan emaitzak argi ageri diren arren, 1. eta 3. ikastetxeen artean (%5,26 eta %4) oso desberdintasun txikia islatzen da.

<sup>18</sup> Ikus 10. eranskina: *Ikasleen autokontzeptua adin, sexu eta eskolaren arabera PSPPN.*

## 9. Taula<sup>19</sup>

*Ikasleen komunikazio sentsazioa adin, sexu eta eskolaren arabera.*

		DESEGOKIA (2)		TARTEKOA (3)		EGOKIA (4)		GUZTIRA	
		Kopurua	Ehunekoa	Kopurua	Ehunekoa	Kopurua	Ehunekoa	Kopurua	Ehunekoa
BATAZ BESTEKOA		2	%3,13	34	%53,13	28	%43,75	64	%100
ADINA	10	0	%0	3	%75	1	%25	4	%100
	11	2	%3,57	28	%50	26	%43,46	56	%100
	12	0	%0	3	%75	1	%25	4	%100
SEXUA	E	1	%3,45	13	%44,83	15	%51,72	29	%100
	G	0	%0	17	%70,83	7	%29,17	24	%100
	X	1	%9,09	4	%36,36	6	%54,55	11	%100
ESKOLA	1	1	%5,26	7	%36,84	11	%57,89	19	%100
	2	0	%0	12	%60	8	%40	20	%100
	3	1	%4	15	%60	9	%36	25	%100

Komunikazio "egokiaren" baitan ehuneko altuenak emakume edo gizon gisa sailkatu ez diren ikasleetan (%54,55), 11 urteko haurretan (%43,46) eta 1. ikastetxeari (%57,89) erantzuten dioten partaideetan daude. Hala ere, adinari dagokionez desberdintasun nabaria ageri da, eta baita sexuari loturiko emaitza jakin batzuetan ere. Izan ere, 11 urtekoetan %43,46a den bitartean, 10 eta 12 urtekoetan %25era jaisten da, eta bi sexu normatiboen baitan sailkatzen ez diren ikasleen atzetik oso hurbil emakumezkoak (%51,72) topa daitezkeen arren gizonezkoek oso ehuneko txikia hartzen dute; %29,17a. Bestetik, 1. ikastetxearen atzetik %20ko aldera heltzen ez diren ehunekoak ditugu; 2. ikastetxearena (%40) eta 3. ikastetxearena (%36).

"Tarteko" komunikazioan, ordea, emaitzak guztiz desberdinak dira. Izan ere, 10 eta 12 urteko ikasleak (%75) nabarmentzen dira, baita gizonezkoak (%70,83) eta 2. eta 3. ikastetxeetako ikasleen oreka (%60) ere. Kasu honetan, adinean desberdintasuna nabari daiteke (10 eta 12 urtekoetan %75a den bitartean, 11 urtekoetan %50era jaisten da), baina ageriagoa da sexuan eta zentroetan. Hala, gizonezkoen ehunekotik urrun xamar topatzen dira bai emakumeak (%44,83) baita sailkatu gabeko sexua (%36,84) ere. Zentroei dagokienean, 2. ikastetxea eta 3. ikastetxea orekan (%60) dauden arren, 1. ikastetxeak (%36,84) ia azken ehuneko horren erdia adierazten du.

Azkenik, komunikazio "desegokiaren" baitan, ehuneko altuenak emakume edo gizon gisa sailkatu ez diren ikasleetan (%9,09), 11 urteko haurretan (%3,57) eta 1. ikastetxeari (%5,26) erantzuten dioten partaideetan daude; oso ehuneko txikiakin. Dena den,

<sup>19</sup> Ikus 11. eranskina: *Ikasleen komunikazio sentsazioa adin, sexu eta eskolaren arabera PSPPn.*

eskoletako emaitzak nahiko orekatuak dira, 3. ikastetxea %4arekin ageri baita 1. ikastetxeari jarraiki.

10. Taula<sup>20</sup>

*Irakasleen komunikazioa sexu eta eskolaren arabera.*

		TARTEKOA (3)		EGOKIA (4)		GUZTIRA	
		Kopurua	Ehunekoa	Kopurua	Ehunekoa	Kopurua	Ehunekoa
BATAZ BESTEKOA		1	%33,33	2	%66,66	3	%100
SEXUA	E	0	%0	2	%100	2	%100
	G	1	%100	0	%0	1	%100
ESKOLA	1	0	%0	1	%100	1	%100
	2	0	%0	1	%100	1	%100
	3	1	%100	0	%0	1	%100

Ikasleon eskutik lorturiko datuok irakasleek duten komunikazioarekin alderatuz gero, 1. ikastetxeko eta 3. ikastetxeko irakasleek euren ikasleen ehuneko altuenarekin bat egiten dutela antzeman daiteke; hau da, irakasleek duten komunikazioak, ia %60an egiten du bat ikasleek bizi duten errealitatearekin. Hala ere, haurren %36a inguru ez dator bat irakasleak duen komunikazioarekin eta beste errealitate bat bizi du; 1. ikastetxearen kasuan "tarteko" komunikaziora joz eta 3. ikastetxearen kasuan "egoki" edo positiboago agertuz. Haatik, aipatu beharra dago, errealitateek bat egin arren, 1. eta 3. ikastetxeetako ikasleak euren irakasleekiko komunikazioa "desegokitzat" ebaluatzen duten bakarrak ere badirela. 2. ikastetxean, ordea, irakasle tutoreak komunikazio "egokia" duela uste duen bitartean, bere ikasleen erdiak baino gehiagok (%60) "tarteko" gisa kontsideratzen dute. Dena den, beste ehunekoa (%40) bat dator irakasle-tutorearekin eta ikasle batek ere ez du komunikazio hau "desegokitzat" ebaluatzen.

## 6.2. Bi galdetegiak emaitzen arteko alderaketa

Aurreko azpiataleko 8. eta 9. taulak aztertuz, bietan zenbait datuk bat egiten dutela ikusi ahal izan da. Hori dela eta, jarraian datu hauen azterketa zehatzagoa egin da; bi galdetegietan batz besteko bera eman duten kasuek ikasle berdinei erreferentzia egiten dieten edo ez aztertze. Gainera, autokontzeptu eta komunikazio batz bestekoen alderaketaren ostean, bi galdetegiak item zehatz batzuk ere hautatu eta ikertu dira, lorturiko datuak sakonago aztertze.

<sup>20</sup> Ikus 12. eranskina: *Irakasleen komunikazioa sexu eta eskolaren arabera PSPPn.*

## 11. Taula

Autokontzeptu eta komunikazio batz bestekoen bat egite adierazgarriak.

		DESEGOKIA (2)		TARTEKOA (3)		EGOKIA (4)	
		Kopurua	Ehunekoa	Kopurua	Ehunekoa	Kopurua	Ehunekoa
ADINA	10			3	%75	1	%25
	11	2	%3,57				
	12			3	%75	1	%25
SEXUA	E						
	G			17	%70,83		
	X					6	%54,55
ESKOLA	1	1	%5,26				
	2						
	3	1	%4	15	%60	9	%36

Oharra: Inolaz ere bat egiten ez duten kasuei, hau da, ikasle desberdinak direnei, kolore gorria ezarri zaie, partzialki bat egiten duten kasuei laranja eta guztiz bat egiten dutenei berdea.

Taula aztertuz, gorriz koloreztatutako datuek edo bat egiten ez duten datuek oso lagin txikia adierazten dutela behatu da. Hori dela eta, laranja zein berde koloreko datuek lagin multzo handiagoak osatzen dituztenez, hauetan sakondu da, gorriztatutakoei arreta gehiegirik eskaini gabe.

Laranja koloreztatuta topatzen ditugun datuetan, emaitza anitzak topatu dira. Hala, "tarteko" autokontzeptu eta komunikazioa islatzen duten 10 urteko hiru haurretatik bi (%66,67) ikasle berdinak direla antzeman da; bi galdetegietan batz besteko berdina dutela. Gainera, hamazazpi gizonetatik hamahiruk (%76,5) eta 3. ikastetxeko hamabostetik bederatzik (%60) ere batz besteko berdinak lortzen dituztela ikusi da. Hori gutxi balitz, autokontzeptu eta komunikazio "egokia" islatzen duten sailkatu gabeko sexuko sei ikasletik hiru (%50) eta 3. ikastetxeko bederatzitik hiru (%33,34) ere ikasle berdinak direla ondorioztatu da. Dena den, datuon barruan autokontzeptu eta komunikazioen batz bestekoan bat egiten ez duten ikasleei erreparaturaz, aipagarria da bi batz bestekoen artean puntu bakarreko aldea soilik topatu izan dela ia kasu guztietan (%89,6an).

Berdez koloreztatutako datuei erreparaturaz, "tarteko" autokontzeptu zein komunikazioa duten 12 urteko hiru ikasletik hiru (%100) eta autokontzeptu zein komunikazio "egokia" duen 12 urteko ikasleak (%100) bi galdetegietan batz besteko bera ematen dutela frogatu da.

12.Taula<sup>21</sup>

*Autokontzeptu eta komunikazio batz bestekoen alderaketa.*

		KOMUNIKAZIOA					
		DESEGOKIA		TARTEKOA		EGOKIA	
		Kopurua	Ehunekoa	Kopurua	Ehunekoa	Kopurua	Ehunekoa
AUTOKONTZEPTUA	DESEGOKIA	0	%0	1	%2,94	1	%3,57
	TARTEKOA	1	%50	24	%70,59	16	%64,06
	EGOKIA	1	%50	9	%26,47	11	%32,81
	GUZTIRA	2	%100	34	%100	28	%100

Ikuspegi orokorra oratuz, hainbat datu aipagarri topa daitezke. Izan ere, emaitzen ehuneko handienak bi eskalek bat egiten duten lekuetan ageri direla ikus daiteke, hau da, komunikazioa "egoki" sentitzen duten ikasleek autokontzeptu "egokia" dutela (%32,81) eta komunikazioa "tarteko" sentitzen duten ikasleek autokontzeptu "tartekoa" (%70,59) dutela sumatzen da. Are gehiago, "tarteko" komunikazioa sentitzen duten horien baitan, emaitza guztiak, bat kenduta, autokontzeptu positibo batera inklinatzen dira; "tarteko" komunikazioa duten gainerako ikasleek (%26,47) autokontzeptu "egokia" dutelarik. Halaber, komunikazioarekiko sentsazioa "egokira" hobetzen denean, autokontzeptu "egokiaren portzentaia nabarmen hobetzen da; %26,47tik ia %33ra.

Hau ikusita, bi galdetegiaren arteko korrelazioak sakonago aztertu dira, autokontzeptuaren galdetegiaren zenbait item ikasleek irakaslearekiko duten komunikazio sentsazioaren batz bestekoarekin harremanduz eta komunikazio galdetegiaren zenbait item autokontzeptuaren batz bestekoarekin lotuz. Horretarako, betiere, lagin handienari erantzuten dioten emaitzei erreparatu zaie.

<sup>21</sup> Ikus 13. eranskina: *Autokontzeptu eta komunikazio batz bestekoen alderaketa PSPPn.*

### 13. Taula<sup>22</sup>

Autokontzeptu akademikoa<sup>23</sup> komunikazioaren batz bestekoekin aztertua.

		11. ITEMA: "Klasean lan asko egiten dut"	
		ADOS	GUZTIZ ADOS
TARTEKO KOMUNIKAZIOA		%53,85	→ %46,15
KOMUNIKAZIO EGOKIA		%41,03	→ %53,85
		16. ITEMA: "Nire irakasleek estimatzen naute"	
		NEUTRAL	ADOS
TARTEKO KOMUNIKAZIOA		%61,11	→ %46,43
KOMUNIKAZIO EGOKIA		%38,89	→ %53,57
		23. ITEMA: "Irakasleak galdetzen didanean urduri jartzen naiz"	
		GUZTIZ DESADOS	NEUTRAL
TARTEKO KOMUNIKAZIOA		%50	← %68,75
KOMUNIKAZIO EGOKIA		%50	← %31,25

Komunikazioaren batz bestekoarekin erlazionatu diren autokontzeptuaren galdetegiko itemak "Klasean lan asko egiten dut" (galdetegiko 11.a), "Nire irakasleek estimatzen naute" (galdetegiko 16.a) eta "Irakasleak galdetzen didanean urduri jartzen naiz" (galdetegiko 23.a) izan dira. Nahiz eta hauetako bakoitza modu batean planteaturik egon, lehenengo biak positiboki eta azkena negatiboki, emaitzek noranzko edo tendentzia berdina adierazten dute; autokontzeptu "egoki" bati erreferentzia egiten dioten emaitzen ehunekoak gora egiten dutela komunikazio "egokia" sentitzen den kasuetan.

### 14. Taula<sup>24</sup>

Komunikazio asertiboa<sup>25</sup> autokontzeptuaren batz bestekoekin aztertua.

		7. ITEMA: "Irakaslea eta ni ondo moldatzen gara"	
		NEUTRAL	ADOS
TARTEKO AUTOKONTZEPTUA		%100	→ %73,33
AUTOKONTZEPTU EGOKIA		%0	→ %26,67
		14. ITEMA: "Irakaslea nire ikuspuntua ulertzen saiatzen da"	
		ADOS	GUZTIZ ADOS
TARTEKO AUTOKONTZEPTUA		%75	→ %54,55
AUTOKONTZEPTU EGOKIA		%25	→ %39,39
		17. ITEMA: "Irakasleari nire sentimenduak adierazi ahal dizkiot"	
		NEUTRAL	ADOS
TARTEKO AUTOKONTZEPTUA		%80	→ %50
AUTOKONTZEPTU EGOKIA		%15	→ %50

<sup>22</sup> Ikus 14. eranskina: Autokontzeptu akademikoa komunikazioaren batz bestekoekin aztertua PSPPN.

<sup>23</sup> Autokontzeptuaren galdetegian autokontzeptu akademikoarekin loturik dauden eta irakasleari erreferentzia zuzena egiten dioten itemak aukeratu dira, ikasleek irakaslearekiko duten komunikazio sentsazioaren batz bestekoarekin alderatzerako orduan esanguratsuagoak izan daitezkeelakoan.

<sup>24</sup> Ikus 15. eranskina: Komunikazio asertiboa autokontzeptuaren batz bestekoekin aztertua PSPPN.

<sup>25</sup> Komunikazioaren galdetegian komunikazio asertibo bati lotuago egon daitezkeen itemak aukeratu dira, esanguratsuagoak izan daitezkeelakoan.

Bestalde, autokontzeptuaren batz bestekoarekin erlazionatu diren komunikazioaren galdetegiko itemak *"Irakaslea eta ni ondo moldatzen gara"* (galdetegiko 7.a), *"Irakaslea nire ikuspuntua ulertzen saiatzen da"* (galdetegiko 14.a) eta *"Irakasleari nire sentimenduak adierazi ahal dizkiot"* (galdetegiko 17.a) izan dira. Kasu honetan ere tendentziak aurreko itemek erakusten dutenarekin bat egiten du.

### 6.3. Emaizten ondorioak

---

Hauek dira ikerketa honetan lorturiko ondorio aipagarrienak:

- Ikasleengan autokontzeptu ohikoena "tarteko" autokontzeptua da, hurrenez hurren autokontzeptu "egokiaz" eta "desegokiaz" jarraiki. Gainera, ez daude muturreko autokontzepturik; ez "oso desegoki" ez "oso egokirik".
- Ikasleek euren irakasle tutoreekiko duten komunikazio sentsazio ohikoena "tartekoa" da, komunikazio "egokia" ia pareko ageri delarik. Gainera, ez daude komunikazio sentsazio muturrekorik; ez "oso desegoki" ez "oso egokirik".
- Autokontzeptua eta irakasleekiko komunikazio sentsazioa adinaren arabera aztertuz, ez da emaitza esanguratsuegirik lortzen, lagina ez baita orekatua.
- Autokontzeptua eta irakasleekiko komunikazio sentsazioa sexuaren arabera aztertuz, emaitzarik onenak bi sexu ez normatiboen baitan sailkatu gabeko ikasleek erakusten dituztela ikus daiteke, oso hurbiletik emakumezkoek eta tarte handiagoz gizonezkoek jarraitzen dituztelarik.
- Autokontzeptua eta irakasleekiko komunikazio sentsazioa ikastetxearen arabera aztertuz, 1. Ikastetxeak lortzen ditu datu positiboak.
- Ikasleek irakaslearengandik jasotzen duten komunikazio sentsazioa hobetu ahala, autokontzeptu "egokiaren" ehunekoa nabarmen areagotzen da. Hortaz, autokontzeptua eta komunikazioa erlazioan daudela baieztatu daiteke.
- Irakasleek duten komunikazioa sarritan ez dator ikasleek haien komunikazioarekiko duten sentsazioarekin bat.



## 7. EZTABAIDA

---

Aurreko orrialdeetan ikusi ahal izan dugun bezala, ikerketa honen bidez aldagaien araberako hainbat emaitza eta beste zenbait emaitza orokor lortu dira. Hori dela eta, emaitzon irakurketa objektiboaren ostean, ezinbesteko sumatzen da hauetan oinarriturik sorturiko hausnarketa, kezka, zalantza, hipotesi, irakurketa eta, finean, gai eztabaidagarriei, bide ematea.

Aldagai sozio-demografikoen araberako emaitzak aztertuz, betiere lagin txikia izatearen ondorioz kasu honetan esangura handirik ez duen adinaren aldagaia aipatu gabe, lan honek sexuari dagokionean espero gabeko emaitzak eta ikastetxeei dagokionean esperotako emaitzak islatu ditu.

Sexu-generoaren araberako emaitzei dagokienez, espero ziren emaitzekin bat ez datozen harritzeko moduko emaitzak lortu dira, autokontzeptu eta komunikazio sentsazio egokienak gizonezko edo emakumezko bezala ez identifikatzea nahiago izan duten ikasleek baitituzte, emakumezkoak eta gizonezkoak, hurrenez hurren, atzetik izanik. Harridura berezia sortu duen datuetariko bat emakumezkoek gizonezkoek baino autokontzeptu hobea agertu izana da, gizarte heteropatriarkal batean emakumearen autokontzeptua etengabe baldintzatua eta menperatua izanik, are gutxiago espero baitzen egoera hau adin honetan ematea; nerabezaroan edota honen atarian autokontzeptuak gizartearen presiopean erakusten duen zaurgarritasunagatik. Hala ere, pentsatzen jarrita eta laginaren adina kontuan hartuz, erantzun eta emaitza hauen arrazoi nagusia emakumezko gehienek, gizonezko gehienekin alderatuta, erakusten duten heldutasun maila altuagoa izan daitekeela da. Izan ere, heldutasun maila altuago batek sendotasun eta segurtasun gehiago erakusten duten emaitzak eragin ditzake.

Datu hauek sorturiko harriduraz gain, emaitza egokienak gizonezko edo emakumezko bezala ez identifikatzea nahiago izan duten ikasleek agertu izanak ere zer pentsa eman du. Izan ere, nahiz eta irakasle tutoreek bere burua identitate sexual edo genero normatiboetatik at ulertzen duen ikaslerik ezagutzen edo aurreikusten ez duten arren, emaitza egokienak lortu dituen ikasle portzentai batek bere burua sexu edo generoaren arabera ez sailkatzea nahiago izan du. Hortaz, galdera garrantzitsua sortzen da: Zer dela eta ikasle hauek ez dute euren burua sexu edota generoaren arabera sailkatu? Hiru hipotesi planteatu dira galdera honi erantzute aldera: (1) Irakasle-tutoreak honen berri ez izan arren, sexu sailkapen binariotik at sentitzen den ikasleak daude; (2) hautua anonimotasuna ahalik eta gehien bermatu nahian egin da; edota (3) ikasleon

autokontzeptua aski sendoa da norbere burua generoan edota sexuan oinarritutako edozein banaketaren gainetik ulertzeko. Dena den, argi dago sexu-generoekin loturiko hipotesi guzti hauek hausnarketa eta ikerketa sakonago bat eskatzen dutela; adin honetan sexu eta generoari zein gizartearen eraginari sakonago eta zehatzago erreparatuko diona.

Ikastetxeen kasuan, ordea, esperotako emaitzak jaso dira, ikastetxe desberdinen emaitzak behatuz zentroen kokapen diren auzoek eta, hortaz, bertako maila sozio-ekonomikoek eta jatorri zein hizkuntza aniztasunek, lorturiko emaitzetan eragina dutela frogatu baita. Izan ere, 1. ikastetxean lortzen dira emaitzarik onenak, 3. ikastetxea oso pareko izanik; hain justu kokapena eta errealtateagatik antzekoak diren bi eskoletan. Bi zentrook ezinbestean anitzak izan arren, ez dute 2. ikastetxearen moduko jatorri aniztasun eta hizkuntza aniztasunik. Gainera, lehenengo bi eskoletan maila sozio-ekonomikoa ertain-altua den bitartean, 2. ikastetxeak, maila sozio-ekonomiko baxua du. Arrazoiak arrazoi, azken zentro honek ez ditu besteen adineko erantzun positiboak lortzen, eta, hortaz, esperotako emaitzekin bat eginik, datuek argi frogatzen dute nola edo hala testuinguru sozialak eragina duela autokontzeptu zein komunikazioan.

Dena den, aldagai sozio-demografikoak kontuan izan gabe, orokortasunari helduz, ikerketa honek ondorio garrantzitsu bat lortu badu, autokontzeptua eta komunikazioaren artean lotura bat existitzen dela izan da, komunikazioaren kalitatea hobetzen denean autokontzeptuan hobekuntza nabari dela frogatu baitu. Beste batzuen artean, honen ondorio da ikasle guztiek, bataz beste, "tarteko" autokontzeptua eta irakasleekiko "tarteko" komunikazio sententzia izatea; hau da, bi galdetegietan bataz bestekoek bat egitea. Datu honek emaitza guztiz desegokiak islatzen ez dituen arren, zer pentsa eman dezake. Izan ere, "tarteko" autokontzeptu eta komunikazio bataz bestekoak aski emaitza onak al dira horren gainetik aukera "egoki" eta "oso egokiak" daudela jakinik? Komunikazioa hobetzean autokontzeptua hobetzen dela ikusirik, zenbat igo liteke ikasleen autokontzeptu "egoki" edo "oso egokiaren" ehunekoa komunikazioa "oso egokia" izatera pasako balitz?

Azterturiko emaitzen tendentzia ikusita azken galdera honen erantzuna oso positiboa izan daitekeela uste da, eta, hori dela eta, lan honek hezkuntzan lan ildo berria zabaltzea proposatu nahi du: irakasleen komunikazio aberastearen bidezko ikasleen autokontzeptuaren hobetzea. Izan ere, autoirudian duen zeresana dela eta, irakasleriaren komunikazioa tresna bikaina izan liteke eskolatik hurren irudi propioa hobetzeko; gure

testuingurutik, hezkuntzatik, autokontzeptua "desegoki" zein "tarteko" baloratzen duten ikasleek "egokitik" gorako balorazioa izateko saiakera egiteko.

Hortaz, ikasleak entzunak, baloratuak eta errespetatuak direla sentitzeak duen eragina oso positiboa dela jakinik, komunikazio asertiboaren aldeko apustu argia egin nahi da; harreman eta interakzioetan pertsonak ikusi, baloratu eta errespetatzen dituen komunikazio estiloaren aldekoa. Izan ere, komunikazio estilo honek autokontzeptua indartzeko oinarrizko suertatzen den giro osasuntsu eta konfiantzazkoa sortzeko aukera eskaintzen du. Hala, irakasleek estilo honen erabilera burutuz gero, ikasgelan zuzeneko interakzioak izan eta autokontzeptuan eragina duten feedback egokiak emateaz gain, tratuan eredu emango dute, modu ez zuzenean bada ere ikasle guztiak komunikazio asertibora hurbilduz eta etorkizuneko euren berdinen arteko harremanetan komunikazio estilo hau ager dadila ahalbidetuz, zein lagun artean autokontzeptua egoki garatzeko testuingurua ahalbidetuz.

